

# **Multimedia testuen estrategia linguistikoak**

(Hitzaren azterketa)

**Ainhoa Lores**

# 1. Hitzaren historia, ezaugarri orokorrak eta datuak

Dagoeneko sei urte pasatu dira, 2003eko maiatzean hain zuzen ere, Egunkariaren itxiera zela eta, Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT) argia lehenengoz ikusi zuenetik. Lehengo Egunkariaren langileek sortutako talde honen helburu nagusia euskarazko egunkari nazional bat sortzea zen eta honekin batera, eskualdeetako egunkariak sustatzea. Honetaz gain euskarazko komunikazio-eremua zabaldu eta aberastea bilatu nahi zuten.

EKT-k baldintza bat jarri zuen bere proiektu komunikatiboen garapenean; komunikabide izaera izatea alde batetik eta hizkuntza normalizazio tresna izatea bestetik. Aipatzekoa da euskarazko komunikazio-eremua, garatuz doan eremua izan arren, pobrea dela ingurukoekin konparatuz, kioskoak ikustea edo telebista eta irratia piztea baino ez dago. Hala ere, tokiko hedabideen eremua kontutan hartzen badugu, euskara gehienetan nabarmendu da, prentsa idatzian batez ere, herri edo eskualdeetan sortuz eta garatuz joan diren aldizkari eta egunkariei esker.

Baina Euskarazko komunikabideek bidean aurrera egitea nahiko zail daukate euskaldunen artean erdarazko egunkariak erosi eta irakurtzeko ohitura handiagoa dagoelako eta askok euskarazko kazetak irakurtzeko zailtasunak dituztelako. Aipatzekoa da urte gutxira arte, ez zirela euskarazko prentsara erakartzeko bideak jartzen eta erdaratik euskararako pausoa ez zela batere errazten. Arazo hauei irtenbide bat eman nahian 2003an Berriak Euskal Herriko eskualde desberdinetan Hitza sortu zuen, 2001eko abenduaren 18ean Egunkariak Tolosaldean hasi zuen bideari jarraitzeko asmoz. Duela sei urte beraz, Oarsoaldeko edo Lea Artibai eta Mutrikuko eskualdeak besteak beste tokiko kazeta honen jaiotzaren lekuko izan ziren.

Egunkari berri hau azkar zabaldu zen Euskal Herriko beste puntu batzuetara eta horrela, 2004eko amaieran sei proiektu abian ziren dagoeneko. Denbora gutxian Hitza proiektu sendoa bilakatu zen alde batetik, herritarrari tokiko informazio aberatsa, kalitatezkoa eta plurala eskaintzeko bidea egiten zuelako, eskualde bakoitzeko euskaldunen artean erreferentzial bat bihurtuz, eta bestetik, Hitza bakoitza eskualdean gehien irakurtzen zen egunkaria izatea lortu nahi zelako. Honetaz gain, euskal prentsa guztiarentzat irakurle eremua zabaltzea izan behar zuen helburu nagusi. Bera, z harpidetza bidez eta etxeraino banatzeak aukera ematen zuen euskal prentsara gerturatzeko prest zegoen irakurlea identifikatzeko, euskal kultur produktuak zuzenean eskaintzeko aukera erabat erraztuz.

Joanmari Larrarte, EKT-ko Kontseilari ordezkariek 2004eko azaroan, Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresuan azaldu zuenez, “batek baino gehiagok planteatu du Berriak ez ote duen tokiko informazioa jasotzeko biderik egingo. Dudarik gabe, egunkari nazionalaren bidez tokiko informazioa lantzeko aukerarik ikusi ez duelako ekin dio EKT-k bide horri. Euskal Herri osoko tokiko informazioa ondo lantzeko, gaur egungo egunkaria halako bi beharko lirateke bakarrik informazioarekin, eta hori, dudarik gabe, bidera ezina da. Horregatik, eskualdeetako egunkariaren bideari oso egoki deritzo EKT-k, Berria kazeta nazionalaren osagarri erabatekoak baitira”.

Aipatutako guztiaz gain, gaur egun, Iker Vidalek (Oarsoalde eskualdeko Hitzako kazetaria) “gertutasuna” eta “laburtasuna” aipatu zituen Hitzaren ezaugarri nagusi moduan “jendeak bere herriaren inguruko albisteak edota iritziak jasotzen ditu modu garbi, erakargarri eta erraz batetan” eta merkatuan ez dagoela Hitzarekin lehiatu

dezakeen horrelako beste produktu berdinek nabarmendu zuen elkarriketa batetan “bakarra da gure eskualdean, inork ez baitu euskarazko beste egunkari lokal bat argitaratzen”.

Baina Hitza ez da paperezko kazeta soil bat, eskualde bakoitzean bere webgune propioa ere badu, Vidalen ustez “Web orrialdeak dira kazetaritzaren etorkizuna”, izan ere, “azkeneko datuek gero eta garbiago erakusten dute edizio inprimatuaren etorkizuna beltza dela oso”. Kazetari gaztearen ustez “garaiak asko aldatu dira eta jendeak nahiago du egunkarian datorren testu handi bat, argazki batez lagunduta datorrena irakurri beharrean, edizio digitalera jo eta albiste berbera era laburragoan irakurri eta ikus-entzunezko multimedia batez lagunduta datorrela ikusi”.

Kazetaritza aldatuz doa eta webguneak dira garapen horren lekuko “Linotipia edota inprentek bere garaian emandako bultzada berbera emango diote kazetaritzari nire iritziz web orrialdeak” zioen Vidalek eta “edizio idatzitik, edizio digitalera ematen ari den pauso honek” ez duela “etenik izango” gaineratu zuen.

Hitza Euskal Herriko zortzi eskualdeetan kaleratzen da bai paperezko euskarrian eta bai bakoitzak duen webgunearen bidez. Gainera, aipatzekoa da joan den martxoaren 27an eredu berritzaile batekin abian jarri zutela tokiko kazeta hau Behe Bidasoako eskualdean, Lapurdiko eta Gipuzkoako bost herritako informazioa zabaltzeko asmoarekin.

Proiektu berria, gainerako zazpiekin ez bezala, astelehenetik ostiralera PDF eta flash euskarrietan eta ostiralero paperezko edizioan zabaltzen da. Honekin, e-gunkariak eta Hitzaren paperezko edizioa elkarreragileak izatea bilakatzen da. Hasiera batean 16 orrialdeko egunkaria zabaldu nahi zuten baina gerora begira, 32 orrialdetara zabaltzeko asmoarekin.

Hauek dira Euskal Herrian dauden gainerako Hitzen datuak paperezko nahiz webguneko egunkarietan:

Eskualdeak. 8.

Herriak. 110 gutxi gora behera.

Tirada, guztira. 48.000 ale.

## **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza**

Sorrera. 2003ko otsailaren 21ean.

Tirada eta irakurleak. 7.500 ale eta 25.250 irakurle.

Herriak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.

Webgunea. [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## **Oarsoaldeko Hitza**

Sorrera: 2003ko ekainaren 23an.  
Tirada eta irakurleak: 6.000 ale eta 21.000 irakurle.  
Herriak: Errenteria-Orereta, Lezo, Oiartzun eta Pasaia.  
Webgunea: [www.oarsoaldekohitza.info](http://www.oarsoaldekohitza.info)

## **Goierriko Hitza**

Sorrera: 2004ko urriaren 4an.  
Tirada eta irakurleak: 8.000 ale eta 28.000 irakurle.  
Herriak: Goierriko eskualdea osatzen duten 17 udalerrietako albisteak biltzen ditu, bai eta Urola Garaia (Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga) eskualdekoak ere.  
Webgunea: <http://www.goierrikohitza.info/>

## **Lea-Artibaiko eta Mutrikuko Hitza**

Sorrera: 2003ko azaroaren 11n.  
Tirada eta irakurleak: 6.000 ale eta 21.000 irakurle.  
Herriak: Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Mutriku, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar.  
Webgunea: [www.11barri.info](http://www.11barri.info)

## **Urola Kostako Hitza**

Sorrera: 2004ko otsailaren 20an.  
Tirada eta irakurleak: 8.500 ale eta 29.750 irakurle.  
Herriak: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orío, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.  
Webgunea: [www.urola-kostakohitza.info](http://www.urola-kostakohitza.info)  
[www.goierrikohitza.info](http://www.goierrikohitza.info)==<http://www.goierrikohitza.info>=l

## **Irutxuloko Hitza**

Sorrera: 2005eko otsailaren 17an.  
Tirada eta irakurleak: 9.000 ale eta 30.000 irakurle.  
Hiria: Donostia.  
Webgunea: [www.irutxulokohitza.info](http://www.irutxulokohitza.info)

## **Busturialdeko Hitza**

Sorrera: 2005eko abenduaren 15ean.  
Tirada eta irakurleak: 5.000 ale eta 18.000 irakurle.  
Herriak: Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gaitegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta.  
Webgunea: [www.busturialdekohitza.info](http://www.busturialdekohitza.info)

## 2. Dimentsio soziolinguistikoa

Hitzak baliabide ugari darabiltza bere webgunean, oso aberatsa den norabide anitzeko komunikazioa eskainiz. Blogak, inkestak eta eztabaidak dira besteak beste elkarreragina sustatzeko dauden tresnetako batzuk.

Baliabide horien bitarteaz, webguneko erabiltzaileek ere beren iritziak, komentarioak... eskaini ditzakete. Albiste bat kontsultatzerakoan ere zure iritzia idatzi dezakezu. *Eztabaida* atalaren bidez, gai baten inguruan daukazun iritzia eskaini eta gainontzeko irakurleekin partekatu dezakezu. Inkesten bidez, galdera bati erantzun eta foroan parte hartu dezakezu. *Zurea da Hitza* izeneko atalean ordea, kontsumitzaileek beraiek egin ditzakete albisteak eta bertan zabaldu. *Elkarrizketa digitalak* atalak irakurleek jende famatuari galderak egiteko aukera eskaintzen die.

Bestetik, informaziozko eduki nagusiak testu idatzian eskaintzen dira, batzuetan argazkiez lagunduta edo sormen propioz egindako soinuz edo bideoz lagunduta. Euskarri desberdinez ari garela, aipatzekoa da dauden bideo guztiak ikusteko atal bat bereizi dutela eta audioen kasuan beste bat.

Hitza garai berriei egokitzen saiatzen da, horren adibide dira aipaturiko bideo eta audioak edota elkarreragina bultzatzeko martxan jarri dituen tresna guztiak. Euskarriei dagokionez, argi dago, oraindik ere gauza asko daudela egiteko, bideoak testuaren osagarri izan arren ez daude oso landuta adibidez. Testuen kasuan ere, paperezko edizio eta webgunekoak ikusten baditugu, ez dago aldaketarik. Ez dituzte hipertestuak erabiltzen.

Hala ere, webgune honetakoa multimedia produktua dela esan daiteke, aipaturiko euskarri eta baliabide komunikatibo guztiak kontutan hartzen baditugu.

Hizkuntzaren aldetik, guztiz euskalduna den multimediazko produktu bat da Hitza. Baina eskualdeko kazeta bat izateko ez ditu tokian tokiko euskalkiei indar gehiegirik ematen. Euskara batu estandarra erabiltzen du, tartean, bertako euskalkiako hitzen bat sartuta. Iker Vidalen ustez “tokiko euskalkiak errespetatzeak, herri ezberdinetako euskara mantentzea eta erakustea dakar eta hori zalantzarik gabe abantaila bat da, baina aipatu dudana bezala, euskara batua baztertzea eta nolabait herri ezberdinetako euskalkien alde jotzeak efektu negatibo bat sortu dezake euskaldun berrien artean, eta hori oztopo bat da”.

Funtzio soziolinguistikoari dagokionez, tokian tokiko informazioa da erreferentzia nagusia eta horretara mugatzen da Hitza. Eskualde gehienetan monopolio osoa dauka kazeta honek, ez baitago ia egunero euskaraz kaleratzen den beste komunikabiderik.

Hitzak tokian tokiko herritarren erabilera aktiboa bilatzen du eta horretarako, aipatu bezala, hauen parte hartzea bilatzen du baliabide komunikatibo desberdinen bidez, blogak, inkestak, eztabaidak... Adin guztietako jendea kontsumitzeko produktua da. Ez da eduki informatiboan geratzen den kazeta digital bat soilik, zerbitzuak ere eskaintzen ditu, lehiaketak, ostalaritza gida bat, agurrak, iragarki laburrak, agenda... Hitzak dituen baliabide ekonomikoak kontutan hartuta oso anitza dela esan daiteke eta euskararen normalizazio prozesuan produktu klabea da.

### 3. Dimentsio pragmatiko-funtzionala

Hitza arestian aipatu bezala, ez da informazio hutsa helaraztera mugatzen den kazeta digital bat soilik, horretaz gain entretenitu ere egiten du elkarreragina bultzatuz eta komunikazioaren dinamika hobetuz.

Baina goazen bada, gai hau pixkanaka pixkanaka sakontzera: edukiak antolatzeko eta nabarmentzeko estrategiari dagokionez, webguneak menu horizontal nagusi bat erabiltzen du agenda, zerbitzuak, eta iragarki laburrak, besteak beste zabaltzeko. Honen azpian aldiz, menuaren erakusleioa dago eta albisteak, blogak, bideoak, fonoteka, eztabaidak, inkestak... hautatzeko aukera ematen du elkarreragina eta baliabide komunikatiborako bidea erraztuz. Menuaren goialdean publizitate bannerra dago. Bestetik, Hitzaren webgune orokor honek badu ezkerreko zutabea, eskualde bakoitzeko kazeta bisitatzeko aukera eskaintzen duen menu bertikal bat eta honen azpian berriz, Euskal Herriko beste hainbat agerkari digitaletara jotzeko linkak aurkitu ditzakegu. Bertan, eskualdea hautatzeaz gain, herri bateko informazio zehatza ere eskuratu dezakezu. Webgunearen erdialdeak egunerokotasunari buruzko albisteak jasotzen ditu, kasu honetan eskualde guztietako berri garrantzitsuenak (Hitzaren webgune orokorraz ari garelako). Testu hauek argazkiez lagunduta egon daitezke edo baita bideoekin ere, albistearen arabera. Bestetik, aipatzekoa da interneteko edukiak eta papereko edizioa elkar-eragileak izatea bilakatzen dutela, herritarrek eta gizarte eragileak informazio igorle bihurtuz. Izan ere, egungo internetak edozein informazio iturri izatea ahalbidetzen du; erabiltzaileek bidalitako argazkiak, sarean zintzilikatutako bideoak eta blogetan idatzitakoak eta kontatutakoak osagai garrantzitsua dira gaur egungo kazetaritzan. Zerbait kontatzeko asmoa edo gogoia daukaten herritarrek aukera paregabea daukate Hitzak eskaintzen dituen honako baliabide hauen bitartez:

- Kazetariak idatzitako berehalako albisteak komentatzeko aukera
- Herritarrek bidalitako informazioa eta argazkiak
- Erabiltzaileen bideoak
- Grabazioak
- Kirolarekin, kulturarekin, euskalgintzarekin, politikarekin edota beste edozein esparrurekin zerikusia duten eragileek elikatuko dituzten blogak
- Irakurleek zozketetan parte hartzeko aukera
- ...

Baina jarrai dezagun edukiak antolatzeko webguneak darabilen estrategia aztertzen; webguneako eskuin aldean, beste zutabe bat aurkitu dezakegu eta aipaturiko menu horizontalaren erakusleioan dauden aukera guztian berriz ere azaltzen dira. Kasu honetan, imajinekin lagunduta eta atal bakoitzean gehiago sakonduz. Zutabea, jendearen parte hartzea bultzatu nahi diren atalak dira nagusi eta kontsumitzaileek modu errazean eta azkarrean erabiltzeko diseinatuta daude. Kolorei dagokienez, erdialdeko zutabea zuria da nagusi baina berdea eta urdina ere erabiltzen dira. Oso kolore garbiak, erakargarriak eta guztiz egokiak dira nabigaziorako, fondoak eta letren arteko kontrastea ez baitu irakurketa oztopatzen.

*Begiradak* atalari arreta berezia eskaini nahiko nioke. Bertan, gai baten inguruan Hitzak sortu duen informazio guztia biltzen da horrela, irakurlea ez da gai horretako aurreko albisteak bilatzen ibili behariko, nabigazioa erraztuz. Horren adibide bat ematearren, bertan Bermeoko Ibilaldiari buruz orain arte plazaratu diren albiste guztiak aurkitu genitzake.

Eskaintzari dagokionez, esan bezala, Hitzaren webguneak produktu multimediatik egiten du apustu, interaktibotasuna edo elkarreragina bilatzen du eztabaida, inkesta eta blogen bidez, besteak beste. Egunerokotasuna ere nabarmentzen da, erdialdeko zutabeen batez ere. Orri honek informatu entretenitu eta praktikotasuna bultzatzen du eskaintzen diren zerbitzu guztien bidez. Oso esanguratsuak dira *Ostalaritza gida*, *Iragarki laburrak* edo *Agurrak* atalean jendea zoriontzeko aukera eskaintzea.

## 4. Testu-dimentsioa

Testu eredu bakarra dago Hitzaren webgunean, hipertestuarena alegia. Askotan oso testu laburrak izaten dira eta oso informazio gutxi eskaintzen dute, egunkari nazionalak ematen dutena baino askoz gutxiago, nahiz eta gertakaria eskualde horretako herri batean gertatu. Adibide bat jartzearren, Lekeition istripu bat gertatzen bada, Lea Artibai eta Mutrikuko Hitzak horren albiste sortzeko informazio berdina edo gehiago eskaini behariko luke nazio mailako beste egunkari batek baino. Izan ere, herri horretako biztanleek arreta berezia jarriko dute albiste horrengan, baina Hitzak lau edo bost lerroko berri bat kaleratzen badu, irakurleek beste egunkari batzuetara joko dute informazio gehiagoren bila. Oso deigarria da kasu batzuetan hiru lerroko titularraren ostean lerro bateko eduki testua ikustea, albistearen berez oso pobrea geratzen da eta estetikoki ez da batere erakargarria. Horren adibide bat ondoko hau da:

**Titularra:** *Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600. urteurrenean 'Atari' eskultura inauguratu dute*

**Testua:** *Goizean Mankomunitateko herrialdeek sinadura ekitaldia egin dute Ordizian.*

Ikusten duzueenez, titularra testua bera baino luzeagoa da eta kasu honetan ez dago sarreratxorik. Albiste hau argazki batez lagunduta zetorren baina ez zen inondik inora foto-albiste bat.



Testu beraren egiturari dagokionez, Titularra, sarreratxo bat eta ondoren eduki nagusiak azaltzen dira. Normalean ez dago erlazionatuta dauden albisteetara joateko alboko edo beheko link-ik. Hala ere, arestian aipatu bezala, gai garrantzitsu baten inguruko albiste guztiak ikusteko *Begiradak* atalera jo besterik ez dago eta bertan, gertakariaren lehenengo egunetik orain arte plazaratu diren berri guztiak aurkitu daitezke, erabiltzailearen mesedetan.

Bestetik, Bideoetan ez da ahozkotasan testurik, ikuskizun edo gertakarien imajinak inguruko soinuekin baino ez.

Elementu grafiko eta testuen arteko loturari erreparatuz, argazkiak dira testuari gehien laguntzen diotenak, bideoak gutxitan azaltzen baitira. Argazkiak albistearen goialdean agertzen dira eskuin aldean. Ez dute oinik eta tamainaz ez dira oso handiak. Albiste batzuetan ez da argazkirik ere azaltzen, testua baino ez.

Atal honekin bukatzeko, aipatzekoa da Hitzak hipertestuagatik egiten duela apustu baina oso urruti dago oraindik ere. Testuak paperezko edizioan zabaltzen dituzten berdinak baitira. Hala ere, Hitzak papera eta internet elkar-eragileak izatea bilatzen du. Erredakzioan kazetarien lan egiteko modua aldatuz, gaur egungo kazetaritzara egokitu ahal izateko.

## 5. Estiloa

Garrantzitsua da aipatzea Hitzak euskararen normalizazio prozesuan duen tokia. Euskarazko Komunikazio Taldeak 2003an sortu zenetik garai hartako euskal prentsaren presentzia urria ikusita “kioskoa euskalduntzeko” erronka abiatu zuen. Alde batetik, Berria sortuz eta handik eta denbora gutxira Euskal Herri desberdinetako eskualdeetan Hitza sortuz. EKTren euskarazko komunikazio eremua bi ardatzetan oinarritzen zen: alde batetik herria eta bestetik hizkuntza, elementu bi hauek euskarazko komunikazio eremu hori egituratzen dutenak zirelako. Talde honek komunikabide izateaz gain euskararen normalizazio prozesuko tresna izatea bilatzen zuen.

Oso garrantzitsua da euskara eremu guztietara zabaltzea eta frogatuta dago jendeak tokian tokiko gertakariak gustuko dituela bere gertutasunagatik batez ere. Hitza sortu aurretik, bere inguruko albisteak bilatzen zuten hartzailleek ez zeukaten euskarazko prentsa irakurtzeko aukerarik eta zoritxarrez, erdarazko komunikabideetara jotzen zuten. Hitzarekin gabezi horri aurre egitea bilatzen zen eta euskara batua estandarra erabiliz Euskal Herriko eskualde desberdinetara zabaldu nahi zen. Hala ere, eskualde bateko herri guztietan euskara maila ez da berdina. Batzuetan, euskaldun berri gehiago egonda euskara batua izan behar da nagusi euskalkien erabilera guztiz mugatuz. Hala ere, euskalkiak erabili, erabili egiten dira ez da berdina Berriak eta Hitzak darabilten hizkuntza eredu adibidez. Iker Vidalen esanetan, “Berriaren estilo liburua erreferentzia da guretzat zalantzarik gabe, baina argi dago Hitza guztietan orokorrean, beste hizkuntza eredu bat erabiltzen dela, ez baita euskara batuerarekiko apustua bakarrik egiten. Horregatik, gurea bezalako egunkarietan euskalkiek toki berezia dutela ikusita, normala da Berriarekiko beste eredu batzuk edukitzea nahiz eta azken finean bien helburua euskara sustatzea eta bultzatzea den honen normalizazioa lortzeko. Berriaren



hizkuntza arduradunek aholkularitza eskaintzen digute. Gauza bat nola idatzi behar den zalantza daukagunean adibidez beraiengana jotzen dugu argitzeko eta zalantza horiek uxatzen saiatzen dira beti. Alde horretatik elkarlana handia da, guztion helburua berbera baita, euskara bultzatzea, sustatzea eta bide batez normalizazioa lortzea”.

Bukatzeko garrantzitsua iruditu zait Berriaren estilo liburuan hizkuntza estiloari buruz (24 orrialdean) aipatzen duena lerro hauetara ekartzea:

*“Irakurleen komunikazio premiak asetzeko, ezinbestekoa da forma eta edukia ondo ezkontzea, azala eta mamia bat etortzea. Edukia ez ezik, forma ere zaindu beharra dauka kazetariak, eraginkor jokatu eta irakurlea bereganatuko badu: estiloa landu behar du, irakurleak lanik gabe irakur dezan; idazkera gozatu behar du, irakurtzea gozagarria izan dadin.*

*Kazetaritzako testu estiloa berezia da, eta beste idazki mota guztietatik bereizia, baina, era berean, askotarikoa ere bada: idazlearen araberrakoa, generoaren araberrakoa, komunikabidearen araberrakoa. Aniztasun horren barruan, baditu ezaugarri orokor batzuk, denak ere gogoan izatekoak testu erakargarriak ontzeko lantegian.*

## • Biografia osagarria:

- Berria egunkariaren estilo liburua (2006)
- 2004eko Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresuan Joan Mari Larrartek aurkeztutako txostena.
- Berria egunkaria ( [www.berria.info](http://www.berria.info))
- Baietz Fundazioa ( [www.baietz.org](http://www.baietz.org))
- Hitza egunkaria ( [www.hitza.info](http://www.hitza.info))
- *Oarsoaldeko Hitza eta On aldizkaria aztertuz*  
([http://kotalaia.files.wordpress.com/2009/05/oarso-aldeko-hitza-eta-on-aldizkaria\\_garbine-altxu\\_oier-iribarren.pdf](http://kotalaia.files.wordpress.com/2009/05/oarso-aldeko-hitza-eta-on-aldizkaria_garbine-altxu_oier-iribarren.pdf))
- Berria egunkariaren estilo liburua (2006)
- *Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT): Etorkizuneko komunikazio taldearen oinarri sendoa.* 2004eko Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresuan Joanmari Larrartek aurkeztutako txostena.